	4. ZUZENBIDE PUBLIKOKO KORPORAZIOEI BURUZKO OHAR KOMUNAK .....	28
III		
	<b>ZUZENBIDE PUBLIKOKO KORPORAZIOAK GFLAN: PUBLIZITATE AKTIBOA ETA INFORMAZIO PUBLIKOA ESKURATZEKO ESKUBIDEA</b> .....	31
	1. ARAU-TESTUINGURUA .....	31
	2. ZUZENBIDE PUBLIKOKO KORPORAZIOEN IZAERA MISTOA (PUBLIKO-PRIBATUA). ZUZENBIDE ADMINISTRATIBOREN MENDEKO EGINTZAK .....	31
IV		
	<b>GARDENTASUNARI BURUZKO FORU LEGEA APLIKATZEAN ZUZENBIDE PUBLIKOKO KORPORAZIOAK LOTZEN DITUEN EREMU OBJEKTIBOA</b> .....	33
	1. PUBLIZITATE AKTIBOA .....	33
	A. Publizitate aktiboaren printzipioak (GFLaren 5. art.) .....	33
	B. Publizitate aktiboa egiteko betebeharra .....	33
	C. Betebeharren mapa .....	34
	2. INFORMAZIO PUBLIKOA ESKURATZEKO ESKUBIDEA .....	38
	A. Informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen egikaritzea .....	38
	B. Eskubidea egikaritzeko prozeduraren inguruko oharrak .....	38
	C. Informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen egikaritzea proiektatu dezaketen eremu materialak .....	39

Izenburua: GARDENTASUNARI ETA INFORMAZIO PUBLIKOA ESKURATZEARI BURUZKO GIDA ZUZENBIDE PUBLIKOKO KORPORAZIOENTZAT

© 2019. NAFARROAKO GARDENTASUNAREN KONTSEILUA

Composición: Pretexto

# I GIDAREN EDUKIA\* ETA ZER ENTITATERENTZAT EGIN DEN

Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen (hemendik goiti GFL) 2.3 artikulua ezartzen duenaren arabera, «Zuzenbide Administrazioaren mendeko jarduerak betetzean, zuzenbide publikoko entitatei aplikatuko zaie, eta beste zenbait entitatei ere, haien gainean Foru Komunitateak eskumena duenean, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren arabera: Lanbide elkargoak, Merkataritza Ganbera, jatorri deiturak, kirol federazioak eta zuzenbide publikoko korporazioak.»

Nafarroako Gardentasunaren Kontseilua Gardentasunari buruzko Foru Legeak araututako organoa da, eta haren eginkizunetako bat da gardentasunaren eta informazio publikoa eskuratzeari inguruko prestakuntza eta sentsibilizazio jarduerak sustatzea. GFLak ezarritako aginduetara erabat egokitzeko lana erraztu nahian, Nafarroako Gardentasun Kontseiluak gida edo eredu hau ondu du, zuzenbide publikoko korporazioentzat baliagarria izanen delakoan, GFLak ezartzen dituen gardentasunaren arloko betebeharrak betetzeko unean. Gida honen helburua da dokumentu batean biltzea, orientatzeko besterik ez bada ere, gardentasun kultura bat aurrera eramateko informazio garrantzitsuena eta zehatzena, eta, era berezian, korporazioen motibazioan eragitea, GFLan ezarritako betebeharrak bete ditzaten.

Publizitate aktiboari dagokionez GFLaren hirugarren xedapen gehigarriak dioenaren arabera, korporazioek behar diren neurriak hartu behar dituzte GFLan aurreikusitako publizitate aktiboko betebeharren ondoriozko informazioak egoitza elektronikoa edo web-gunean egon daitezela, gehienez urtebeteko epean, GFLak indarra hartzen duen egunetik hasita; epe hori 2019ko abuztuaren 23an amaitzen da. Zuzenbide Administrazioaren jardueraren ondoriozko informazio publikoa herritarren eskura jartzeko aginduei dagokionez, GFLaren xedapenak guztiz aplikatzekoak dira 2018ko abuztuaren 23az geroztik.

Gidaren edukari eta egiturari dagokionez, lehenik eta behin, helburua da zuzenbide publikoko korporazioen markoa eta izaera zehaztea, izan ere, GFLaren mendekoak dira, baina ez Administrazio Publikoen neurri be-

rrak betetzeko unean. Gida honen helburua da dokumentu batean biltzea, orientatzeko besterik ez bada ere, gardentasun kultura bat aurrera eramateko informazio garrantzitsuena eta zehatzena, eta, era berezian, korporazioen motibazioan eragitea, GFLan ezarritako betebeharrak bete ditzaten.

\* Gida hau prestatzeko, foru legedira egokitu da Gardentasunaren eta Gobernu Onaren Kontseiluak eta Lanbide Elkarrekin prestatutako Gardentasunari eta Informazio Publikoa Eskuratzeari buruzko Gida. Elkargoentzat eta lanbide elkargoetako eta zuzenbide publikoko korporazioetako kontseiluentzat prestatu zen gida hori. 2016ko abendua.

rean. Bigarrenik, gidak xehetasunez azaltzen ditu GFLarekin egokitzearen ondorioz korporazioek «Zuzenbide Administratiboarekin lotutako jardueri dagokienez» bete beharko lituzketen arloak. Alderdi honi sakontasunez heldu behar zaio, era egokian zehazteko GFLan ezarritakoaren arabera derrigor bete beharreko arloan sartzen diren edo kanpoan geratzen diren gaiak, ahal diren zehaztasunik eta ziurtasunik handienak emanez.

nez heldu behar zaio, era egokian zehazteko GFLan ezarritakoaren arabera derrigor bete beharreko arloan sartzen diren edo kanpoan geratzen diren gaiak, ahal diren zehaztasunik eta ziurtasunik handienak emanez.

## II ZUZENBIDE PUBLIKOKO KORPORAZIOEN TIPOLOGIA: LEGE ESPARRUA

### 1. LANBIDE ELKARGOAK. NAFARROAKO LANBIDE ELKARGOEI BURUZKO APIRILAREN 6KO 3/1998 FORU LEGEA

Konstituzioaren 36. artikulua jasotzen du lanbide elkargoen figura, eta legeari agintzen dio haien berezitasunak arautu ditzan.

Hona zer ezartzen duen Nafarroako Lanbide Elkargoei buruzko apirilaren 6ko 3/1998 Foru Legeak, bere 2. artikuluan: «Lanbide elkargoak zuzenbide publikoko korporazioak dira, beren helburuak betetzeko nortasun juridikoa eta erabateko gaitasuna dutenak». 4. artikuluan, berriz, hau xedatzen du:

*4. artikulua. Nafarroako Administrazio Publikoekiko lankidetzak.*

*1. Nafarroako Gobernuak, Foru Dekretu bidez, Nafarroako lanbide elkargoengan delegatzen ahalko ditu elkargo horien lanbideari lotutako funtzio administratiboan jardunak, eta Foru Dekretu hori «Nafarroako Aldizkari Ofizialean» argitaratuko da.*

*Foru Dekretu horrek zehaztu beharko ditu eskuordetze horren irismena, edukia, iraupena eta baldintzak, hala nola Nafarroako Gobernuak beretzat gordetzen duen kontrola eta, hala behar izanez gero, horretarako emanen dituen baliabide pertsonalak nahiz ekonomikoak.*

*Nolanahi ere, Nafarroako Gobernuak jarraibide orokorrak agintzen ahalko ditu eta, noiznahi, elkargoaren kudeaketaren inguruko*

*informazioa eskatzen ahalko du, eta orobat ordezkariak bidali eta behar diren errekerimenduak ere egiten ahalko ditu. Jarraibideak, informazio eskaerak edo errekerimenduak betetzen ez direnean, delegatu duen gobernuak uko egiten ahalko dio delegatze horri, edo berak egikaritzen ahalko du delegatutako eskumena.*

*Eskuordetze hori eraginkorra izan dadin elkargo interesdunak onartu beharko du.*

*2. Nafarroako Administrazio Publikoek lankidetzak hitzarmenak egiten ahalko dituzte Nafarroako lanbide elkargoekin eta elkargoen kontseiluekin, elkarren interesekoak diren jardueretan aritzeko.*

### 2. JATORRI DEITURAREN KONTSEILU ARAUEMAILEA

Mahastizaintzari eta Ardogintzari buruzko abenduaren 5eko 16/2005 Foru Legeak bere 20.2 artikuluan ezartzen duenaren arabera

*«jatorri deituraren kudeaketa Kontseilu Arauemaileari esleitzen zaio; bertan ordezkari izanen dute ekoizleek eta merkaturatzaileek, eta jatorri deituraren kudeaketaz arduratzen den zuzenbide publikoko korporazioaren izaera izanen du. Bere nortasun juridikoa du, eta halaber autonomia ekonomikoa, gaitasun juridiko osoa eta bere eginkizunak betetzeko gaitasuna. Zuzenbide publikoaren menpe dago*



*bere sorrerari, antolaketari eta hauteskunde prozedurari dagokienez, hala nola, funtzio edo ahal publikoak betetzeko jarduketari dagokienez.»*

Jatorri Deituren edo Deitura «Espezifikoan» beste hainbat Kontseilu Arauemaile badira, abenduaren 2ko 25/1970 Legean eta haren Erregelamenduan ezarritakoaren haritik sortutakoak (erregelamendu hori martxoaren 23ko 835/1972 Dekretuak onetsi zuen). Horiek bere gain hartzen dituzte Deitura Espezifikoaren defentsa, erregelamenduaren aplikazioa eta betetzen dela zaintzea, eta babestutako produktuaren kalitatearen kontrola eta sustapena ere bai.

Esate baterako, Nekazaritzako, Abeltzaintzako eta Mendietako Kontseilariak 1987ko otsailaren 23an emandako Foru Aginduak, «Nafarroako zainzuria» Deitura Espezifikoaren erregelamendua eta haren Kontseilu Arauemailea argitaratzeko agindua ematen duenak, 3. artikuluan xedatzen du «*Deitura Espezifikoaren defentsa, haren Erregelamendua-ren aplikazioa, hura betetzen dela zaintzea, hala nola babestutako zainzuriaren kalitatearen kontrola eta sustapena, Deitura Espezifikoaren Kontseilu Arauemaileari esleitzen zaizkio.*» Hala ere, «Nafarroako Zainzuria» Deitura Espezifikoak babesten dituen zainzurien ekoizpen-eremuak barne hartzen ditu Nafarroa, Aragoi eta Errioxako lurraldeetan Kontseilu Arauemailearen iritziz behar den kalitateko zainzuriak ekoizteko egokiak diren eremuak. Horregatik, Kontseilu Arauemailea kide anitzeko organoa da, Nekazaritza, Arrantza eta Elikaduraren Ministerioaren mendekoa, Elikaduraren Politikarako Zuzendaritza Nagusiaren bitartez. Beraz, ez dirudi Foru Komunitateak eskumena duenik, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 3/1982 Lege Organikoaren arabera. Ondorioz, Kontseilu hori ez litzateke GFLaren mendeko.

Beraz, Deitura Espezifiko edo Jatorri Deitura bakoitza aztertu behar da, banan-banan

(«Erronkariko Gazta», «Lodosako Pikillo Pipe-rra», «Nafarroako Patxarana», «Tuterako Orburua», etab.).

### 3. NAFARROAKO MERKATARITZA, INDUSTRIA ETA ZERBITZU GANBERA

Merkataritza, Industria eta Zerbitzu Ganbera Ofizialari buruzko apirilaren 10eko 17/2015 Foru Legearen 2.1 artikulua ezartzen duenez, «*Ganbera da zuzenbide publikoko korporazio bat, nortasun juridikoa du eta bere helburuak betetzeko jardute-gaitasun osoa; administrazio publikoen aholkularitza eta lankidetzarako organo bezala taxutu da, baina dituen interes pribatuak kaltetu gabe.*»

### 4. ZUZENBIDE PUBLIKOKO KORPORAZIOEI BURUZKO OHAR KOMUNAK

Zuzenbide publikoko korporazioek interes pribatu hutsen -korporazioko kideen interesak- ordezkari eta defentsa egiten badituzte ere, pertsona juridiko-publikoen izaera aitortzen zaie, elkartzeko eskubidea gauzatuz sortutako elkarte hutsei ez bezala. Horren justifikazioa da, hain zuzen ere, haiei hainbat funtzio publiko betetzeko jarduerak esleitzen zaizkiela, legez eta, hainbat kasutan, horiez gain, Foru Komunitateak delegazioz esleitutako jarduerak. Funtzio publiko horiek dira, edo zehatzago esanda, funtzio horien legezko esleipen zuzena eta berehalakoa da erakunde horiei zuzenbide publikoko korporazioen izaera emateko bidea ematen duena, haien antolaketa eta funtzionamendu araubide berezia azaltzen baitute.

Zuzenbide publikoko korporazioak entitate bereziak dira, izaera bikoitza, pribatua eta publikoa, dutelako. Alderdi publikoa

agertzen da jarduera pribatuetan aritzearekin lotutako interes publikoaren ikuspegi batetik; alderdi pribatua, berriz, korporazioko kideen interes legitimoen defentsan. Hor-taz, esaterako, jurisprudentziaren arabera, lanbide elkargoak lurraldeko administrazio publikoekin parekatzen dira, elkargoen alderdi publikoari dagokionez, eta alderdi publiko hori legeak esleitzen dizkien funtzioekin soilik lotzen da.

Azkenik, aipatu behar da GFLaren 2.3 artikulua jasotzen dituen entitateen zerrendan

Nafarroako kirol federazioak ere biltzen dituela. Hala ere, legediak ez die aitortzen entitate horiei zuzenbide publikoko korporazioen izaera, entitate pribatutzat jotzen baititu, eta eskuordeturik betetzen dituzten funtzio publikoari buruz ari dela esaten du «Administrazio Publikoaren laguntzaileak» direla. Antzeko arrazoiak aurkitzen dira Nafarroako Kirolari buruzko uztailaren 5eko 15/2001 Foru Legearen 42. artikuluan eta hurrengoetan. Beraz, ez da ulertu behar kirol federazioak gida hone-tan sartzen direla.

# III

## ZUZENBIDE PUBLIKOKO KORPORAZIOAK GFLan: PUBLIZITATE AKTIBOA ETA INFORMAZIO PUBLIKOA ESKURATZEKO ESKUBIDEA

### 1. ARAU-TESTUINGURUA

2.3 artikulua ezartzen duenez, GFLaren xedapenak zuzenbide publikoko korporazioei aplikatzen zaizkie *Zuzenbide Administratiboari lotutako jardunean ari diren aldetik*. Kontzeptu hau zehaztea eta, beraz, GFLaren manuen aplikazioa korporazio publikoetan noraino iristen den zehaztea da abiapuntuko premisa, hain zuzen ere, entitate horiek onartu behar dituzten betebeharrak zehazterakoan.

Lehenik eta behin, azpimarratu behar da zuzenbide publikoko korporazioak GFLaren eremu subjektiboan sartzeak, arestian aipatutako 2.3 artikuluekin bat, alde batetik dakarrela entitate horiek bete behar izatea GFLaren I. tituluaren III. kapituluaren -18. eta 29. bitarteko artikulua- zehazten diren publizitate aktiboko betebeharrak, «Zuzenbide administratiboaren menpeko jardueri» dagokienez; bestalde, horren ondorioz, pertsona guztiek dute entitate horien esku den informazioa eskuratzeko eskubidea. Informazio publikoaren kontzeptu horretan sartzen dira entitate horren esku diren edukiak eta dokumentuak, edozein dela ere haien formatua edo euskarria, betiere entitatearen funtzio publikoaren egikaritzan elaboratu edo bereganatu dituztenak, eta aurrez egikarituta eskubidea, GFLaren III. tituluaren II. kapituluaren -34. eta 44. bitarteko artikulua- araututako prozeduraren arabera.

Eskatzen den informazioa lotuko da, era berean, korporazioek legearekiko duten menpekotasunaren mugarekin, hau da, «Zuzenbide administratiboaren menpeko jardueri» dagokien informazioa izan behar duela eskatutakoak. Zein dira jarduera horiek? Adibidez, Mahastizaintzari eta Ardogintzari buruzko abenduaren 5eko 16/2005 Foru Legeak bere 20.2 artikuluan ezartzen duenez, jatorri izendapenaren Kontseilu Arauemailea «*zuzenbide publikoaren mendekoa da bere sorrera, antolaketa eta hauteskunde prozedurari dagokienez, eta hala-ber funtzio edo eskumen publikoen jardunen ondoriozko jarduketei dagokienez.*»

### 2. ZUZENBIDE PUBLIKOKO KORPORAZIOEN IZAERA MISTOA (PUBLIKO-PRIBATUA). ZUZENBIDE ADMINISTRATIBOREN MENDEKO EGINTZAK

Auzitegi Gorenak 2011ko martxoaren 7an emandako epaiak honela dio auzi horri buruz:

*Administrazio Korporatiboaren izaera berezi horrek berekin dakar, baita ere, araubide juridiko misto espezifiko bat, alde batetik Zuzenbide Publikoko arautegia eta, bestetik, ezinbestez pribatutzat jo behar diren beste zenbait arau dituen. Oinarri pribatuko ente*

*korporatibo hauen gainean, Estatuaren esku-hartzea haien sorrerarekin hasten da, aginpide-egintza baten bidez, hala aitortzen baitzaio, nolabait, izaera publikoa lanbide zehatz baten jarduerari. Egintza horrek berak lanbide korporazioari ematen dio nortasun juridiko-publikoa, interes orokorreko funtzioak bete dituzan, modu monopolistikoan, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren kontrolpean. Hori ukatu gabe, haien funtzio nagusia ez da publikoa, izan ere, haren funtsezko helburua da korporazioko kideen lanbide komunaren jardueraren ondoriozko interes pribatiboak kudeatzea. Kasu horretan, kide horien arteko gatazkarik sortuz gero, beste Jurisdikzio baten ardura izanen da haien arteko auziak ebaztea.»*

Oinarri pribatukoak izanik funtzio publikoetan ari diren entitateei zuzenbide publikoko korporazioen izaera aitortzea justifikatzen da hainbat interes publiko betetzen dituztelako, besteak beste, lanbide jardueraren ordenamendua, deontologia arauak betetzen direla zaintzea, zehapen eskumena egikaritzea, auzi-errekurtsoak, kontsumitzaile eta erabilitzaileen eskubide eta interesen defentsa, etab, (apirilaren 11ko 3/1998 Foru Legea, Nafarroako Lanbide Elkargoei buruzkoa, 3. artikulua).

Era berean, haien foru lege arautzaileak esleitzen dizkien funtzioen multzotik, betetzen dituzten eginkizun guztien artean, batzuk bakarrik jo daitezke publikotzat, hau da, legeak esleitzen dizkien eta Foru Komunitatearen Administrazioak eskuordetzen dizkien funtzioak (adb. sektorearen interesak ordezkatzeko eta defendatzeko, gai horietan eskumena duten administrazio desberdinen

aurrean; lanbidea arautzea; korporazio horien lankidetzaren administrazio publikoekin, sektorearekin lotutako funtzioetan aritzean; administrazioak eskuordetzean eman dizkien funtzioak, etab.); gainerako funtzioak, interes partikularrei begira betetzen dituztenak dira.

Beraz, erran daiteke funtzio publiko horien jarduera dela Zuzenbide Administrazioari lotzen zaiona, zehatzago, administrazio prezedurari buruzko legediari; gainera, esleitutako funtzio publiko horiek betetzean egindako egintzak izan daitezke administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren xede.

Ildo horretatik, gogora ekar daiteke Zuzenbide Administrazioaren mendeko direla korporazioen antolaketari eta funtzionamenduari dagozkien egintzak, eta haren mendeko dela, baita ere, arautzen dituen legediak esleitzen dizkien edo beste administrazio publikoek eskuordetuz ematen dizkieten funtzio administratiboaren egikaritzea. Ondorio horietarako, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 2.4 artikulua ezartzen duenaren arabera, «Zuzenbide Publikoko Korporazioak beren araudi espezifikuari atxikiko zaizkio, edo modu osagarrian, Lege honi, legeak esleitu dizkien edo administrazio publiko batek eskuordetu dizkien funtzio publikoaren jarduerari dagozkionez». Bestalde, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 2.c) artikulua ezartzen duenaren arabera, «administrazioarekiko auzien jurisdikzioak bere gain hartuko ditu funtzio publikoaren jardueran Zuzenbide Publikoko Korporazioek egindako egintzen eta xedapenen inguruko auziak».

## IV GARDENTASUNARI BURUZKO FORU LEGEA APLIKATZEAN ZUZENBIDE PUBLIKOKO KORPORAZIOAK LOTZEN DITUEN EREMU OBJEKTIBOAK

### 1. PUBLIZITATE AKTIBOAK

#### A. Publizitate aktiboaren printzipioak (GFLaren 5. art.)

GFLaren eremu subjektiboan sartzen diren entitate guztiei bezala, Foru Komunitateko Administrazioari lotutako korporazioei aplikatzen ahal zaizkie GFLaren 5. artikuluan aurreikusitako irizpide orokorrak. Printzipio orokor horiek, publizitate aktiboari dagozkionez, hauetan bildu daitezke:

- Zuzenbide publikoko korporazioek etengabe eman eta zabaldu behar dute beren esku dagoen eta beren jarduerari buruzkoa den informazioa, egiatasunez eta objektibotasunez; izan ere, publikoa da, printzipioz, haien esku, zaintza-pean edo kontrolpean dagoen informazio guztia, legeak aurreikusten dituen salbuespenak salbuespen.
- Argitaratze aktiboaren betebeharrak bitarteko elektronikoen bidez beteko dira, kode irekiko softwarea erabiliz eta sustatuz, hala nola estandar ireki eta neutralen erabilera, teknologia eta informatikaren arloetan.
- Informazioa modu argian, egituratuan, eskuragarrian eta ulergarrian argitaratu behar da.
- Informazioa argitaratzerakoan kontuan hartu behar dira gardentasunaren ar-

loko betebeharrak GFLaren 31. artikulua ezartzen dizkien mugak eta, batez ere, datu pertsonalen babeserako eskubidea.

#### B. Publizitate aktiboa egiteko betebeharrak

Gardentasunaren arloko betebeharrak egoki betetzeko, GFLaren 11. artikulua ezartzen duenaren arabera, zuzenbide publikoko korporazioek hauek egin behar dituzte:

- Beren jardueretatik Zuzenbide Administrazioaren mendeko direnen gardentasuna bermatzeko zabaldu beharreko informazioa, prestatu, eguneratu, hiru hilean behin gutxienez, eta zabaldu modu iraunkorrean, egiatzekoan eta objektiboan, norberaren egoitza elektronikoen edo webguneen bidez.
- Apartatu honen a) letran aipatzen den informazio publikoaren inbentario bat egin eta hiru hilean behin zabaldu, informazio hori non aurki daitekeen adierazita.
- Informazio publikoa kudeatzeko sistematik eta politikak garatu, haren fidagarritasuna, etengabeko eguneratzea, integritatea eta benetakotasuna bermatzeko.

- d) Informazio publikoa kudeatzeko neurriak hartu, hura lokalizatzea eta zabaltea erraza izan dadin, eta eskuragarritasuna, elkar-eragingarritasuna, kalitatea, egiazkotasunaren kontrola eta argitaratutako informazioaren berrera-bilera sustatzeko.
- e) Informazioa modu argi, egituratu eta ulergarrian argitaratu. Informazio guztia formatu erabilerraz eta ulergarritan egonen da, erabilerraztasun unibertsalaren eta pertsona guztiendako diseinuaren printzipioekin bat.
- f) GFLak pertsonen aitortzen dizkien eskubideak zabaldu, behar bezala erabiltzeko aholku eman erabiltzaileei, eta informazioa bilatzen lagundu.
- g) Informazio publikoa epe hauetan egonen da argitaratuta:
- Izatezko egoerak deskribatzen dituen informazioa argitaratuta egonen da, gutxienez, egoera horiek irauten duten bitartean.
  - Arauei buruzko informazioa arauak indarra duten bitartean, gutxienez.
  - Kontratu, hitzarmen eta dirulaguntzei buruzko informazioa argitaratuta egonen da haietatik heldu diren betebeharrak irauten duten bitartean eta amaitu ondorengo hamar urteetan ere bai, gutxienez.
  - Informazio ekonomikoa sortu zen unetik hasi eta gutxienez hamar urtez egonen da argitaratuta.

mazio publiko, eta batez ere, maizenik eskatzen dena. Horri erantsi behar zaio publizitateari dagokionez araubide zabalagoa aurreikusten duten xedapen berariazkoetan (18.2 artikulua) ezartzen diren publizitate betebeharrak. 7. artikulua arabera, informazioa argitara eman behar da federazioen webguneetan. Horretarako, gomendagarriena izan daiteke Gardentasun Atari bat sortzea, federazio horren egoitza elektronikoan edo webgunean.

Ondoren, orientatzeko besterik ez bada ere, zuzenbide publikoko korporazioen publizitate aktiboaren betebeharren maparen osagaiak deskribatzen dira:

#### a) Informazio instituzionala, antolaketakoa eta garrantzi juridikokoa

- a) Aurrera eramaten dituzten eginkizunak, aplikatu beharreko araubidea eta barne antolaketaren egitura, organigrama eguneratua erantsita, eta bertan adierazita haien organoen egoitzak eta kontaktatzeko bideak.
- b) Gobernu Batzordeen bileretako aktak.

Lanbide Elkargoen Gobernu Batzordeetako akte dagokienez, Administrazioekiko Auzien 6. Epaitegi Zentralak 2018ko otsailaren 23an emandako epaiak (prozedura arrunta 35/2017) adierazten du ezen «Argi dago Gobernu Batzordearen funtzionamenduaren araubidea, deialdia, erabakiak hartzeko araubidea eta, zehatzago erranda, elkargoen gobernu organoek hartutako erabakien inguruko dokumentazioa, zuzenbide publikoko jarduerak direla, hori ondorioztatzen baita 40/2015 Legearen ezarpen osagarritik. Lege horretara bideratzen du Espainiako Abokatzaren Estatutu Orokorra onartzen duen ekainaren 22ko 658/2001 Errege Dekretuaren 99.2 artikulua. Beraz, aipatutako akta horietan jasotako informazioa publikoa da eta eskatzen dutenen

eskura jarri behar da, muga bakarra dela datuen babesaren bermea, izan ere, ezin baita onartu aitzakiatzat jartzea aktetan zuzenbide administratiboaren menpeko gaiak daudela edo zuzenbide pribatukoak, esandakoa frogatu edo egiaztatu gabe».

#### b) Informazio ekonomikoa, aurrekontuei buruzkoa eta estatistikoa

Ondoren zehazten da agindu hau betetzeko zein informazio eta norainokoa argitaratu behar duten zuzenbide publikoko korporazioek:

##### • Kontratu publikoak

Zuzenbide publikoko korporazioak botere adjudikatzaileak dira?

Behin baino gehiagotan adierazi du jurisprudentzia europarrak (Europako Batasuneko Justizia Epaitegiaren 2017ko urriaren 5eko epaia) entitate bat botere adjudikatzailea dela hiru baldintza metagarri betetzen direnean, alegia, a) entitate hori berariaz egina izatea interes orokorreko eginkizunak, industria edo merkataritza izaerarik gabekoak, betetzeko; b) nortasun juridikoa izatea; c) haren jardura gehienbat botere publikoek finantzatua izatea, edo haren kudeaketa kontrolatua, edo bestela, haren administrazio, zuzendaritza edo zaintzako organoetako kideen erdiak baino gehiago botere publikoek izendatuak izatea.

Kontratazio Publikoari buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 4.1 artikulua ezartzen duenaren arabera, honako entitate hauek hitzartutako kontratu publikoari aplikatuko zaie:

«e) Enpresa-entitate publikoak eta zuzenbide publikoko entitateak, partzuergoak, merkataritza- eta lan-sozietateak, fundazioak edo beste entitate batzuk edo horietako edozein

elkartek, nortasun juridikoa badute, publikoa nahiz pribatua, eta aurreko letretan aipatutako entitateei loturik badaude edo haien mendekoak badira, eta betiere baldintza hauek **biak** betetzen badituzte:

1. Beren jardueraren bidez, neurri batean bederen, interes publikoko helburuak beten badituzte, industria edo merkataritza izaerarik ez dutenak, eta enpresa arriskurik beren gain hartzen ez dutenak.

2. Administrazio publikoek, zuzenean edo zeharka, haien jardueraren erdia baino gehiago finantzatzen badute, edo haien jardueraren gain eragin nagusia badute, kudeaketa kontrolatzeko mekanismoen bitartez edo administrazio, zuzendaritza nahiz zaintza organoetako kideen erdiak baino gehiago izendatzea ahalbidetzen duten mekanismoen bitartez.»

Zuzenbide publikoko korporazioei dagokienez, Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioak ez ditu izendatzen haien administrazio, zuzendaritza edo zaintzako organoen kideen erdiak baino gehiago, eta finantzazioa gehienbat Administrazioaren kargu izateko baldintza ere ez da betetzen, izan ere, haien diru-iturri nagusiak hauek dira: korporazio kideek ordaintzen dituzten kuotak edo derramak eta kideen alde nahiz elkartearen alde egiten dituzten jardueretatik eta zerbitzuetatik lortzen dituzten produktu eta etekinak.

Bestalde, ezin da ulertu Foru Komunitatearen Administrazioaren babesak, korporazioen zenbait egintzaren gainean ondoren egiten duten kontrolaren bidez egiten denak, eragin erabakigarria izan dezakeen korporazioen erabakietan. Erabaki horiek eskatzen zituen Europako Komunitateen Justizia Auzitegiak 2003ko otsailaren 27an emandako epaiak, eta hark finkatu zituen kudeaketaren kontrolaren beharkizun horren izaera orokorra.

Beraz, ondorioztatu daiteke zuzenbide publikoko korporazioek ez dutela bete behar Kontratu Publikoari buruzko Foru Legea, ez baitituzte betetzen adjudikatzaile izateko 4.1 ar-

## C. BETEBEHARREN MAPA

Ondoren deskribatzen diren zerrendak ulertu behar dira, GFLaren aplikazioan, informazio publikoaren gutxienezko betebeharrak gisa, izan ere, horrez gain, 29. artikulua ezartzen duenaren arabera, argitara eman beharko da herritarren interesekotzat jotzen den beste edozein infor-

tikuluan ezarritako gutxieneko baldintzak (horrer haritik, ikus LÓPEZ BENÍTEZ «Algunas consideraciones a propósito del ámbito subjetivo de la nueva Ley de Contratos del Sector Público de 2017. En particular, el caso de las Corporaciones de Derecho público», DAn argitaratua, aro berria, 4 zk., 2017, 140 or. eta ondokoak).

Hala ere, kontuan izanik ezen, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean ezarritakoarekin bat, administrazioarekiko auzien jurisdikzioak bere gain hartzen dituela funtzio publikoen jardueran zuzenbide publikoko korporazioek egindako egintzak; eta bestalde, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidegoari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 2.4 artikulua ezartzen duela «Zuzenbide Publikoko Korporazioak beren araudi espezifikoa atxikiko zaizkio, lege esleitu zaizkien edo Administrazio Publiko batek, edo modu osagarrian, lege honek, eskuordetu dizkien funtzio publikoen jarduerari dagokionez», ondorioztatu daiteke, baita ere, korporazioen betebeharrak dela argitaratzea eta publikoaren eskura jartzea Kontratu Publikoari buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legean aipatzen diren kontratuak, **haien xedea denean esleitu zaion funtzio publiko baten jardueraren proiektzioa.**

Gainera, LÓPEZ BENÍTEZek, aipatutako lanean, 140. orrialdean, dioenez «ez dirudi eragozpenik jarri behar denik zuzenbide publikoko korporazioek egindako zenbait kontratu jarri behar badira -intentsitate handiago edo txikiagoz- kontratu publikoaren araudiaren menpe. Hala da, izan ere, egiten dituzten kontratuak modu zuzenean eta %50etik gorako portzentajearekin botere adjudikatzailearen batek diruz laguntzen dituenen.»

Kasu horietan, ondoko hau argitaratuko dute:

- Xedea, kontratu mota eta kontratazio organoa.
- Formalizazio data.
- Exekuzioaren hasiera eguna.
- Iraupena.

- Adjudikaziorako erabilitako prozedura.
- Lizitazioaren eta adjudikazioaren zenbatekoak.
- Parte hartzen duten lizitatuak kopurua, onartu eta baztertu direnak identifikatuta, eta, kasua bada, prozeduran hautatu direnak.
- Adjudikazio-hartzailearen identitatea.
- Adjudikazio-hartzailearen kaudimen teknikoak eta ekonomikoak.
- Adjudikaziorako irizpideak, bai balorazio automatikoa egitekoak, bai judizio-balioaren eta ponderazioaren mende daudenak.
- Eskaintza ekonomikoak, proposamen teknikoak eta hobekuntzak konparatzen dituen taula, baldin badaude, puntuazio guztiak adierazita irizpide bakoitzaren arabera, eta arrazoen laburpena. Erabaki eta txosten juridikoak, teknikoak eta kontu-hartaitzakoak, kontratazio prozesuarekin lotutakoak.
- Kontratazio prozesuarekin lotutako txosten juridikoak, teknikoak eta kontu-hartaitzakoak.
- Onetsitako aldaketak, kontratu osagarriak eta kontratuen luzapenak.
- Kontratuaren lagapenari eta azpikontratazioari buruzko informazioa, zehaztuta lagapen-hartzaileen edo azpikontratisten identitatea, zenbatekoa, eta kontratu bakoitzean azpikontratatu den bolumenaren portzentajea.
- Kontratuaren amaieran egindako likidazioaren zenbatekoa.
- Prezioen berrikuspenari buruzko informazioa, bai eta kontratatutako preztazioaren amaierako kostuan izandako desbideratzea, adjudikatutako zenbatekoarekin alderatuta.

#### • Hitzarmenak

Korporazioa aritzean esleitu zaizkion funtzio publikoetan, sinatu dituen hitzarmenak ar-

gitaratu behar dira. Publizitate horrek kontzeptu hauek jasoko ditu:

- Alderdi sinatzaileak
- Helburua
- Iraupen epea
- Egindako aldaketak
- Betebeharrak, barnean sartuta, halakorik balego, haien ondoriozko betebeharrak ekonomikoak.

Argitara emanen diren kontratu eta hitzarmenetan jasotzen diren datu pertsonalak argitaratzeari dagokionez, korporazioak bete behar du Gardentasunaren eta Gobernu Onaren Kontseiluak eta Datuen Babeserako Agentzia Espainiarrak, biek ala biek, sinatutako 2015eko 4. interpretazio-irizpidea.

#### • Kudeaketa esleipenak

Zuzenbide publikoko korporazio batek, betetzen dituen funtzio publikoetan aritzean, kudeaketa esleipen bat egiten duenean, ondoko datu hauekin argitaratuko da:

- Esleipena zer entitateri egin zaion eta iraupena.
- Esleipena egiten duen organoak edo entitateak bere bitarteko pertsonalekin zerbitzuak ez ematea justifikatzen duten arrazoiak eta, hala badagokio, zerbitzu hori sektore publikoko kontratuen gaineko legerian aurreikusitakoari jarraikiz ez lizitatzea egiaztatzen duten arrazoiak.
- Esleipena egiten duen korporazio publikoaren erabakiz, esleipena hartu duenaren esku jarriko diren baliabide materialak, lan hori egiteko.
- Esleipen bakoitzean sartutako pertsonen kopurua eta lanbide kategoriak, bai eta langileria gastuetarako erabiliko den zenbateko osoa ere.
- Esleipenaren xedea eta betebeharrak ekonomikoak, barnean hartuta ezarritako tarifak edo prezioak.
- Aurrekontuaren eta prezioen aldaketak eta berrikuspenak, bai eta esleipenaren amaierako likidazioa ere.

- Azpikontratazioak, egin badira, adierazita horretarako erabilitako prozedura, pertsona edo entitate adjudikazio-hartzailea eta adjudikazioaren zenbatekoa.
- Baliabide berekiak kontrol enteen alde egindako jardueraren portzentajea adieraziko da, ekitaldi bakoitzeko.

#### • Ekonomia eta aurrekontuak erabiltzeko egintzak

2011ko martxoaren 7ko Auzitegi Nagusiaren Epaiaren arabera:

*«Hala ere, aurreko zuzenbide-oinarrian aurreratu genuenez, Administrazio Publikoetatik bereizten dira, beren jarduerari gehiena ez delako Zuzenbide Administrazioaren mendeko: haien langileak ez dira funtzionario publikoak; haien finantzak ez dituzte kontrolatzen, ez Estatuaren Kontu-hartzaileak, ez eta Kontuen Auzitegiak ere; eta haiek sortzeko Administrazioak duen helburua da funtzioen deszentralizazioa eta, beraz, interes publikoekin lotutako eginkizunak ematen dizkie, esku-hartze zuzeneko ente publikoak sortzea saihestuz.*

*Horregatik, elkarteekin eta sindikatuekin bat egiten duen elementuetako bat da korporazioaren sostengu ekonomikoa, gainera, haren izaera batez ere pribatua adierazten duena. Sostengu hori korporazioaren kideei dagokie, berez finantzazio publikorik gabe, dirulaguntzen bidez dagokiona ez bada. Horrenbestez, finantza-autonomia dute».*

Beraz, Auzitegi Nagusiaren jurisprudentzia finkatuaren arabera, zuzenbide publikoko korporazioek finantza-autonomia dute eta haien finantzak ez dituzte kontrolatzen ez Foru Komunitatearen Administrazioaren Kontu-hartzaileak, ez eta Kontuen Ganberak ere. Hortaz, aurrekontuak erabiltzeko beste edozein egintza, eta zehatzago erranda, ematen dituzten dirulaguntzak, aurrekontuak, urteko kontuak edo korporazioaren ar-



duradunek jasotzen dituzten diru-sariak **ez daitezke jo informazio publikotzat** GFLaren arabera eta, beraz, ez da beharrezkoa haiek argitaratzea.

Hala ere, borondatezko gardentasun ariketa egitera gonbidatzen ditu Gardentasunaren Kontseiluak zuzenbide publikoko korporazioak, argitara eman ditzaten, bederen, sarrera eta gastuen aurrekontua, korporazioaren urteko kontua eta kanpoko auditorien txostenak.

## 2. INFORMAZIO PUBLIKOAK ESKURATZEKO ESKUBIDEA

GFLa bete behar duten entitateak izanik, zuzenbide publikoko korporazioek erantzun behar diete informazioa eskuratzeko egiten zaizkien eskaerei, **informazio hori beren funtzio publikoen jardueran elaboratu edo lortu badute.**

### A. Informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen egikaritzea

Informazioa eskatzen duen pertsonak ez du zertan argitu zergatik eskatzen duen. Hala ere, arrazoi horiek azaltzen ahal ditu, eta kontuan hartzen ahal dira, ebazpena ematerakoan. Nolanahi ere, arrazoirik ez emate hutsagatik ezin izanen da eskaera atzera bota.

Eskaera aurkez daiteke eskatzailearen nor-tasunaren berri izateko modua eskaintzen duen edozein bidetatik, eta ez da beharrezkoa izanen haren egiaztatpena.

Eskaeran argi eta zehatz adierazi behar da zer informazio eskatzen den, eskuratzeko nahi den forma edo formatua, eta harremanetarako helbide bat, elektronikoa ahal bada, komunikazioak errazteko.

Eskatzaileak informazio hori aski argi eta zehatz adierazten ez duenean, hamar egu-

neko epean zehazteko eskatuko zaio, bitartean bertan behera utziz gehieneko ebazteko epea eta ohartaraziz, hala egiten ez badu, uko egiten diola ulertzen ahal dela. Nolanahi ere, laguntza emanen zaio bere eskaera zehaztu dezan.

Informazio publikoaren ardura duten unitateek eta informazio bulegoek, bai eta eskaera aurkeztu edo zuzentzen den organo edo entitateak ere, behar den laguntza emanen dute informazioa eskuratzeko eskubidearen egikaritzea errazteko, eskaera egiteko erabiltzen den bitartekoa edozein dela ere, kolektibo batzuen behar bereziak kontuan hartuta.

Administrazioarekiko Auzien 6. Epaitegi Zentralak 2018ko otsailaren 23an emandako epaiak (prozedura arrunta 35/2017) adierazten du ezen «gai horiek publizitate aktiboaren betebeharrak atxikiak izanik ere, horren ondorioz ezin da ukatu eskatutako informazioa eskuratzeko herritarrek duten eskubidea, argitara eman den informazioarekin, osotara edo hein batean, bat egiten badu ere, Legeak berak bereizten baititu gardentasun printzipioaren arabera ezarritako betebeharrak. Horregatik, alde batetik, publizitate aktiboa eskatzen du, eta bestetik, III. kapituluak (12. artikulua eta hurrengoak) informazio publikoa eskuratzeko eskubidea aitortzen du, eskubide subjektibo hau ezin eragotzi edo baldintzatu delarik, publizitate aktiborako Legeak ezartzen dituen betebeharrak betetzeagatik».

### B. Eskubidea egikaritzeko prozeduraren inguruko oharra

Lanbide elkargoek argi adierazi behar dute, beren webgunean, beren esku duten informazioa eskatzeko eskubidea dutela herritarrek, eta eskubide hori gauzatzeko prestatu dituzten bideak modu argian eskaini behar dituzte.

Erantzunak kontuan izan behar du gerta daitekeela informazioa eskuratzeko eskubi-

deak mugaren bat izatea, besteak beste, GFLaren 31. artikuluan ezarritakoak, edo 32. artikuluko datu pertsonalen babeserako eskubidearen ingurukoak, eta halaber GFLaren 37. artikulua eskaera ukatzeko aurreikusitako arrazoiak bat.

Ematen den erantzunean, adierazi behar da erreklamazioa aurkezten ahal dela Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluaren aurrean, eskaeraren erantzuna jakinarazten den egunetik hasi eta hilabeteko epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, epaitegi eskudunean, bi hilabeteko epean.

Kasu bakoitzean ebazteko eskumena duen organoak lehenbailehen eman beharko du eskatutako informazio publikoa, edo, bestela, lehenbailehen jakinaraziko dizkio eskatzaileari informazio hori ukatzeko arrazoiak, beranduena hilabete batean, eskaera korporazioaren erregistroan sartzen denetik kontatuta, oro har. Informazioa ukatzeko arrazoiak hirugarrenek jabetza intelektualeko edo industrialerako eskubidea edukitzea baldin bada, eskubide horien titularrak den pertsona fisikoa edo juridikoa zein den adierazi beharko da, ezaguna izanez gero, edo, bestela, zeinek laga duen eskatutako informazioa.

Epe hori hilabete bat gehiago luzatzen ahal da, baldin eta, informazioaren bolumena eta konplexutasuna ikusita, ezinezkoa bada lehen adierazitako epean ematea. Kasu horretan, hamar eguneko epean gehienez, eskatzaileari adierazi behar zaio zer arrazoi izan diren ebazpena epe horretan emateko.

Eskaerak hirugarrenen eskubide edo interes legitimoak ukitzen baditu, hamabost eguneko epea emanen zaie haiei alegazioak egiteko. Alegazio horiek kontuan hartuko dira eskaera onartu ala ez erabakitzeke, baina ezin dira betoa izan informazioa eskuratzeko eskubidea ukatzeko.

Eskaera ez tramitatzea erabakitzen ahal da, korporazioaren funtzio publikoen jardueran sortu edo lortu ez den informaziori buruzkoa bada.

## C. Informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen egikaritzea proiektatu dezaketen eremu materialak

Lehen azaldu den moduan, zuzenbide publikoko korporazioek GFLaren 18. eta 29. bitarteko artikuluetan zehazten diren publizitate aktiboko betebeharrak bete behar dituzte, «Zuzenbide Administrazioaren mendeko jarduerari» dagokienez; era berean, pertsona guztiak dute entitate horien «Zuzenbide Administrazioaren mendeko jarduerari» dagokien informazioa eskuratzeko eskubidea, aurretiaz egikaritzea eskuratzeko eskubidea - GFLaren 30. eta 44. bitarteko artikulua-.

Kasu horien artean aipa daitezke, **orientatzeko besterik ez bada ere**, zenbait arlo material, haien gainean proiektatu baitaiteke Zuzenbide Administrazioaren mendeko jarduerari buruzko informazio publikoa eskuratzeko eskubidea; esaterako:

- Zuzenbide publikoko korporazio horren hauteskunde prozedurari buruzko informazioa, sufragio aktibo eta pasiboaren eskubidearekin lotutako informazioa biltzen duena; hauteskunde deialdia; hautagaitzen aurkezpena; hautesle-errol-daren elaborazioa; hauteskunde mahaia-aren osaera eta mahaiburuen eskumena; boto-papera; botoa egiaztatzeke modua; posta bidezko botoa; boto-kontakteta; dagokion aktaren elaborazioa; eta, azkenik, hautatutako izangaien kargu-jabetzea, horren mugatzailea dela GFLaren 32. artikuluko datuen babesaren bermetik eratoritzen dena, adibidez, hautesle-errol-dari dagokiona.
- Gobernu organoen aktak, erabakiak edo ebazpenak, dagokion arautegian aurreikusitako jardueratik Zuzenbide Administrazioaren mendeko diren funtzioak betetzearekin lotutakoei buruzkoak direnak, horien muga dela GFLaren 32. artikuluko datuen babesaren bermetik eratoritzen dena.